

2016/03/15ean EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 15/03/2016

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria

Aintzane Agiriano Errasti  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko martxoaren 15ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez etortzeko arrazoiak eman dituzte Mainer Landak eta Edorta Barandiaranek.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 15 de marzo de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusan su asistencia Mainer Landa y Edorta Barandiarán.

## **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2016ko martxoaren 10era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da 21/2015 eta 1/2016 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

## **2.- HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

2015eko urriaren 20an hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua zenbait esleipen irizpide erabilita prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteak hasteko erabakia hartu zen. Kontratuaren lehenengo urteko lehiaketa aurrekontua, BEZ barne, 150.000 eurokoa da.

Era berean, kontratua aratu behar zuten administrazio baldintzen agiria eta baldintza teknikoena onartu ziren eta dagokion gastua baimendu zen.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten beraienak:

- DISTRIVISUAL S.L.
- HEMEN GARBIKETAK S.L.U.

Balio-iritziaren bidez ebaluatu daitezkeen esleipen irizpideak baloratuta, ondorengo puntuazioa eman zaio enpresa bakoitzari:

- DISTRIVISUAL S.L. 6,5 puntu.
- HEMEN GARBIKETAK S.L.U. 14,5 puntu.

Kontuan izanik DISTRIVISUAL S.L. enpresak ez zituela 9 puntu lortu (6,5 lortu ditu) TXOSTEN TEKNIKOaren atalean, eta 8. baldintzan jartzen duela aipatutako puntuazio hori gutxieneko dela kontratazio prozesuan aurrera jarraitu ahal izateko, DISTRIVISUAL S.L. enpresa prozesutik KANPO UZTEA eta beraien proposamen ekonomikoak ez irekitzea erabaki zuen Kontratazio Mahaiak.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak lortutako puntuak honako hauek dira:

-  ESKAINTZA EKONOMIKOA: 70 puntu

- TXOSTEN TEKNIKOA: 14,5 puntu

- HOBEKUNTZAK: 8 puntu

- GUZTIRA: 92,5 puntu

Balorazioak baldintza agirian ezarritako esleipen irizpideen arabera egin ondoren, kontratua HEMEN GARBIKETAK SLU enpresari esleitzea proposatu du Kontratazio Mahaiak.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresari errekerimendua egin zitzaien hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen zuen biharamunetik kontatuta, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean zituela, derrigorrezko aseguru sinatuta zuela eta esleipen prezioaren, BEZ gabe, ehuneko bosteko (%5) behin betiko bermea jarri izana egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko.

Lehiatzaileak legeak agindu bezala aurkeztu du dokumentazioa aurreikusitako epean.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarra da kontratazio organo eskuduna.

Aipatutako aurrekari eta xedapenen arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 151. eta 161. artikuluei jarraiki, eta eman zaizkion eskuduntzak erabiliz, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatu ondoren, Rafael Bernal abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea ondoren adieraziko den esleipen prezioan (BEZ barne). Kontratua baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunei lotuta egongo da.

- DERRIGORREZKO ZERBITZUAK 148.886,87 €
- AUKERAKO ERAIKIN EDO GUNEAK

Udaletxea: 22.416,72 €

Kultur etxea: 11.743,22 €

Musika Eskola : 4.742,38 €

Kiroldegia: 28.356,11 €

Pilotalekua: 15.178,34 €

- GARBIKETA BEREZIA EGITEKO AUKERAKO ZERBITZUA

Ibarraundi Museoa: 46,06 €

Zaldibar antzokia: 69,08 €

Pilotalekua: 345,4 €

Udal etxebizitzak: 276,32 €

Kultur etxea: 46,06 €

**Bigarrena.-** 148.886.87 euroko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko dagokion aurrekontu aplikazioaren kargura. Diru kopuru hori kontratuaren lehenengo urterako kontratatutako zerbitzuen kostuari dagokio.

<u>KONTZEPTUA</u>	<u>GASTUA (€)</u>	<u>PARTIDA</u>
Luis Ezeiza Herri Eskola	37.682	01.00.227.323.40.01
Haurreskola	15.687,74	0100.227.323.30.01
Biblioteka	10.353,49	0100.227.332.10.01
Kulunka Haurtzaindegia	14.726,45	0100.227.323.10.01
Ibarraundi Museoa	16.633,41	0100.227.333.20.01
Ludoteka	5.152,05	0100.227.337.30.01
EPA	2.936,00	0100.227.326.20.01
Elkarteen txokoa	1.327,37	0100.227.341.60.01
Kiroldegia	35.067,63	0100.227.342.20.01
Kiroldegiko garajeak	728,32	0100.227.342.20.01
Tren geltoki zaharra	1.169,90	0100.227.153.40.01
Zaldibar antzokia	7.017,69	0100.227.333.30.01

**Hirugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea dagokion kontratua formalizatzeko.

**Laugarrena.-** Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean (kontratatzailearen profila) eta EEAO on argitaratzea.

### **3.- BERNABE ERRASTI JAUNAREN JABETZATIK MAZMELARAKO BIDERAINO DOAN BIDE ZATIAREN TITULARITATEA IKERTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.**

Javier Errasti Uriarte jaunak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuen Udalbatzarrak 2012ko abenduaren 28an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horrekin Bernabe Errasti jaunaren jabetzatik Mazmelako errepidera doan bidea, "Tejeria bidea" deitzen zaiona, ofizioz ikertzeko espedienterik ez hasteko Udalak hartutako erabakiaren aurka Javier Errastik jarritako errekurtsua ezestea erabaki zen.

Aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua jarrita, eta dagozkion izapideak eginda, 2016ko otsailaren 9an epaia eman du Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak.

Epai horren epaitza honako hau da:

*"Que debo ESTIMAR Y ESTIMO el recurso contencioso-administrativo interpuesto por la Procuradora Ainhoa Kintana Martínez, en la representación que legalmente ostenta, frente al Acuerdo de 28 de diciembre de 2012, del Ayuntamiento de Eskoriatza por el que se desestima el recurso de reposición interpuesto por el recurrente frente al Acuerdo de 7 de noviembre de 2012 por el que se desestimaba la solicitud de éste, consistente en que se incoase un expediente de investigación para determinar el uso público del tramo del camino que pasando por la propiedad del recurrente Bernabé Errasti va hasta la carretera de Mazmela, que anulo, porque no es conforme a derecho y condeno al Ayuntamiento de Eskoriatza a que abra un expediente de investigación relacionado con el camino a la tejería, sito en el término municipal de Eskoriatza, en el tramo que va desde la propiedad de Don Bernabé Errasti Ibarzabal hasta la carretera de Mazmela, en el que se especifique la titularidad pública o privada del mismo. Todo ello con expresa condena en costas a demandada".*

**KONTUAN HARTU BEHARREKOA:** Udal ondasunak ikertzeko ahalaren bidez kotasunari buruz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.d) artikuluan adierazitakoa.

**KONTUAN HARTU BEHARREKOA:** Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 44.1.a) artikuluan eta 45etik 55era bitarteko artikuluetan ezarritakoa Toki Erakundeek ofizioz ikertzeko duten ahalari buruz.

Goian transkribatutako epaitza judiziala betetze aldera, Udalbatzarrak, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Bernabe Errasti jaunaren jabetzatik Mazmelarako errepideraino doan "Tejeria bidea" deitzen zaio bidearen zatiaren titularitatea ikertzeko espedienteari hasiera ematea.

**Bigarrena.-** Eskoriatzako Udalaren 0200.226.920.00.99 aurrekontu partidari izendatzea egin gura den ikerketa egiteko beharrezko gastuak.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkateari bidea ikertzeko espedientea tramitatzeke beharrezko diren ekintza guztiak egiteko. Instrukzio batzordeko kide izendatzea ondorengo pertsonak:

- Kideak: Josu Ezkurdia, Iñaki Kerejeta, Aitor Zubizarreta eta Rafael Bernal.

- Idazkaria: Edurne Iturbe Lascurain.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta aldizkari horren ale bat Eskoriatzako Udaleko iragarki oholean jartzea hamabost (15) egunez.

**Bosgarrena.-** Erabakia bidearekin muga egiten duten lurretako jabeei jakinaraztea.

**Seigarrena.-** Bideari buruzko ikerketa espedientea hasteko erabaki honen berri ematea Estatuko, Erkidegoko eta Foru Administrazioari.

**Zazpigarrena.-** Hilabete bateko (1) epean erabaki hau Eskoriatzako Udaleko iragarki oholean argitaratzen den hamabosgarren (15) egunaren biharamunetik kontatzen hasita, beraien ustez kaltetuak direnek beraien eskubideak babesteko egoki irizitako guttia alegatu ahal izango dute idatziz.

#### **4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturata egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

A. **Preskribatuta egoteagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 1.094,93 €.

15/10/01etik 15/12/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK							
IZENA	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA		GUZTIRA	ZERGATIA
CONTRUCCIONES CONDE RAPOSO, S.L.	JEZA	2008	38 A022425	237,18	47,43	284,61	PRESKRIPZIOA
ANDONI URIBE ECHEBARRIA ECHEVARRIA	JEZA	2009	39 A029604	409,20	105,46	514,66	PRESKRIPZIOA
CONSTRUCCIONES CONDE RAPOSO, S.L.	JEZA	2010	30 A022425	246,39	49,27	295,66	PRESKRIPZIOA
<b>GUZTIRA</b>				<b>892,77</b>	<b>202,16</b>	<b>1.094,93</b>	

B. **Bidezkoak ez izateagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 138,00 €.

(*)KONTZEPTUA/EPEA/ZENBAKI A	ZENBATEKO A (€)	ZERGADUNA	ARRAZOIA
033/2015/53/500/1	138,00	GARZÓN SANABRIA MIKEL	Ez dagokio ordainagiria. Alokairuari uko egin zion.  672/2015 erabakia

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**5.- 5.- “EMAKUMEEN EUSKAL BIRA” ANTOLATZEKO HITZARMENA SINATZEA DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREKIN.**

Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak urtero antolatzen du "EMAKUMEEN EUSKAL BIRA" izeneko proba.

Proba hori "emakumea eta kirola" sustatzen dituen ekimen bat da, bailarako gazteei emakumezko nazioarteko kirolari profesionalak gertutik ezagutzeko aukera ematen die eta erreferenteak eskaintzen dizkie.

Nazioarte mailako lasterketa da emakumeen txirrindularitza arloan, sona handikoa, kirola eta ikuskizuna.

Ekintza honen bitartez eragileen arteko inplikazioa sustatu eta diskriminazioari aurre egiteko berdintasunaren aldeko urratsak ematen dira, guztion alde.

Horregatik guztiagatik, azken urteetan Debagoieneko udalek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu izan dugu Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartearekin proba horretako etapa bat Debagoieneko udalerriren batean egin ahal izateko.

Aurten, gai hori Mankomunitateetik bideratu eta koordinatzeko komenigarritasuna planteatu dute udal ordezkariak Mankomunitateko Kirol Batzordean.

Batzordean gaia aztertu da eta ikusi da Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan, xedea aipatzen denean, hirugarren atalean, "Udal-ekintza zehatzen koordinazioa" jasotzen dela, Udalek aurrez horrela erabaki ondoren.

Gauzak horrela, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** Mankomunitatearen esku uztea 2016an, 2017an, 2018an eta 2019an "Emakumeen Euskal Bira" probaren etapa bat Debagoienean egin ahal izateko Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkartearekin dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatzea eta aipatu hitzarmenetik eratorritako betebeharrak eta eskubideak gauzatzea.

### **KLAUSULAK**

*1.- Hitzarmen honen helburua da Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak antolatutako "EMAKUMEEN EUSKAL BIRA" probaren etapa bat Debagoieneko herriren batean egitea 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan, ondorengo xehakapenaren arabera:*

- 2016an: Eskoriatzan.
- 2017an: Antzuolan.
- 2018an: Aretxabaletan.
- 2019an: Oñatin.



2.- 2016ko gastua 9.000,- €-koa izango da. eta hurrengo hiru urteetako, 2017, 2018 eta 2019, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago, 12.000 €-koa, urte bakoitzeko.

Debagoieneko Mankomunitateak lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteari honela ordainduko dio urtero aipatu zenbatekoa: %50a apirilaren 1a baino lehen, eta beste %50a maiatzaren 15a baino lehen.

3.- Urteko zenbateko hau honela banatuko da Mankomunitateko Udalen artean:

- Etapa egiten den herriko udalak: 4.500 € 2016an, eta 6.000,- €uro, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago, hurrengo hiru urteetan.
- Beste udalen artean: 4.500 € 2016an, eta 6000€ 2017an, 2018an eta 2019an, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituan barruan badago, honela banatuta:
  1. Tarteko helmuga (meta bolantea) duen herriko Udalak: 1.000 € 2016an, eta 1500 € hurrengo hiru urteetan, beti ere froga WORLD TOUR zirkuituaren barruan badago.
  2. Gainerakoa herri bakoitzeko biztanleen arabera banatuta, tarteko helmuga duena barne.

4.- lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak koloretako hiru orrialde utziko dizkio Debagoieneko Mankomunitateari probaren ibilbide-liburuan. Fotolitoak eta kartelean ipintzeko logotipoak Debagoieneko Mankomunitateak eman beharko ditu.

5.- Debagoieneko Mankomunitateak probaren aurkezpen ofizialean parte hartu ahal izango du, eta baita probaren inguruan egingo diren protokolo ekintza guztietan ere.

6.- lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak lau metro hesi utziko dizkio Debagoieneko Mankomunitateari Irteeran eta beste lau metro Helmugan, Mankomunitateak emandako publizitatea aipatu Kirol Elkarteak jartzeko.

7.- lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak konpromisoa hartzen du etapan laburpenak emateko hainbat telebista-kanaletan. Halaber, probaren zatiak zuzenean emango dituzte telebista kate publikoek eta lurraldeko beste kate pribatu batzuek.

8.- lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak bermatu egiten dio Debagoieneko Mankomunitateari 900,00 euroko publizitate tarte bat izango duela GARA egunkarian urte bakoitzean. Publizitate hau etapa egiten den urte bakoitzean egin behar da, eta ez du inolako eraginik izango Mankomunitateak aipaturiko egunkarian egin ohi duen publizitatean.

9.- lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak egun bakoitzari dagokion trofeoa emango du, eta Debagoieneko Mankomunitateak erabakiko duelarik nork entregatzen duen trofeoa.

*2017tik 2019ra bitarteko edizioetan, urte baten lasterketaren azken etapa Debagoieneko Udalerri batean izango da. Arestian aipatzen diren baldintzetan, hau da, ez du izango inongo koste gehigarririk.*

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkartuz sinatu dezan.

**Hirugarrena.-** Aurten etapa bat Eskoriatzan jokatzegatik, Udalari 4.500 euro ordaintzea dagokionez, 4.500 euroko gastua onartzea 0400.227.340.0013 partidaren kargura.

**Laugarrena.-** 1.500 euroko gastua konprometitzea 2017ko, 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuen kargura.

## **6.- 2016-RAKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAREKIN.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Kirol Elkarteari 25.000 euroko diru laguntza ematea Elkarteak 2016an antolatuko dituen jarduerak finantzatzen laguntzeko, eta gastu hori onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0400.481.341.20.01 partidaren kargura. Erakunde onuradunarekin sinatu beharreko hitzarmenean ezarritako erregimenari lotuta egongo da diru laguntza. Hitzarmeneko baldintzak erabaki honen eranskinean jasotzen dira. Ordainketarako ezarritako zati bakoitza zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin ondoren ordainduko da.

**Bigarrena.-** Eskoriatzako Kirol Elkarteari prekarioan lagatzea Intxaurtxueta kaleko 9. zenbakiko etxabea. Lagapena erakunde lagatzailearekin sinatu beharreko hitzarmenean ezarritako erregimenari lotuta gelditzen da.

**Hirugarrena.-** ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREKIN sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea. Hitzarmen horretan jaso eta arautzen dira alde bakoitzak hartzen dituen betebeharrak Elkarteak Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzeko, eta emandako diru laguntza eta udal lokalaren lagapena zer nolako baldintzen menpe gelditzen diren.

Hitzarmen horretan honekin batera doan eranskinean agertzen diren baldintzak jaso beharko dira.

**Laugarrena.-** ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAK bere bazkideek 2016ko irailaren 31ra arte udal kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu behar duen tasaren kitapena onartzea, guztira, 1.890 euro. Urteko gainerako zatiari dagokion tasaren kitapena eta ordainketa hitzarmenean ezarrita dagoen bezala egingo da.

**Bosgarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkartzan, eta hitzarmen hori betetzeko bidezko diren behar beste erabaki hartzeko.

**7.- JOSE SERAFIN FERREIRA GONÇALVES JAUNAK EGINDAKO ESKAERA: UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ESKORIATZAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZAKO 16.B ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA ESLEITZEKO PROZEDURA HASTEKO BAIMENA.**

2016ko martxoaren 4ko Alkate erabakiz (B15/001292) hirigintza lizentzia eman zitzaion JOSE SERAFIN FERREIRA GONÇALVES jaunari ondorengo obra egiteko: Intxaurtxueta 35, behea helbidean dagoen lokala udal etxebizitza tasaturako egokitzea Nerea Asensio Iriarte arkitekto tekniko andreak egindako eta 2014/12/16an bisatutako proiektuaren arabera.

Udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23an, ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA eman zion JOSE SERAFIN FERREIRA GONÇALVES jaunak sustatutako etxebizitzari.

2015eko urriaren 27ko 00998. Alkate erabakiz JOSE SERAFIN FERREIRA GONÇALVES jaunak sustatutako UDAL ETXEBIZITZA TASATUA esleitzeko oinarriak onartuta, zozketarako onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartutzat jo zen.

ETXEBIDEk emandako onartuen zerrendako inork ez zuenez zozketan parte hartzeko interesik izan, ez zen zozketarik egin, eta etxebizitza esleitu gabe gelditu zen.

Orain, 2015eko azaroaren 27an, Jose Serafin Ferreira Gonçalves jaunak baimena eskatu du Intxaurtxueta auzoko 35. zenbakian dagoen udal etxebizitza tasatua esleitzeko prozedura hasteko Udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzako 16 B artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal etxebizitza tasatuak arautzeko ordenantzako 16.b artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena ematea Jose Serafin Ferreira Gonçalves jaunari etxebizitza eskuratzeko interesdunak lortzeko prozedura hasteko.

**Bigarrena.-** Erosleak lortzeko baimendutako prozedurarako gutxieneko baldintzak finkatzea, ondorengoak:

- **ESLEIPENDUNEN BALDINTZAK:**
- Bizikidetzaren unitateko kide baten bat adinez nagusia edo emantzipatua izan beharko da. Oinarri hauetarako bizikidetzaren unitate baten jabea izan behar du, jabea izan behar duen pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez. Ez da bizikidetzaren unitate baten jabea izan behar adiskidetasun edo komenientziagatik sortutakoa. Etxebizitzaren titularkide izango dira bizikidetzaren unitateko adin nagusiko kide guztiak, lerro zuzeneko ondorengoak izan ezik.
- **ETXEBIZITZARIK EZ IZATEA:** Etxebizitzaren onuradunek ezingo dute etxebizitza erosten duten urteko urtarilaren 1a baino bi urte lehenagotik beste etxebizitzarik izan estatuan, dela erabateko jabetzan edo azalerakoan dela biziarteko gozameneari. Hala ere, onartu egingo dira etxebizitza beharra definitzen duten araudi autonomikoan ezarritako salbuespenak. Salbuespen horiek etxebizitzak administrazioari lagatzea aurreikusten dutenean, administrazio hori Eskoriatzako Udala edo honek izendatutako erakundea edo sozietate publikoa dela ulertu beharko da.
- **EGOITZA:** Bizikidetzaren unitateko kideren batek honako hauek bete beharko ditu:
  - Ohiko egoitza Debagoieneko gainontzeko udaletan izan eta bertan erroldatuta egotea gutxienez 2016ko urtarilaren 1etik, eta betiere, eskaintzak eskaera gaitzen badu.
- **DIRU SARRERAK:** - Bizikidetzaren unitatearen urteko diru sarrera haztatuak 2015eko zerga-urtean, babes ofizialeko etxebizitzaren euskal autonomia erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ezingo dira izan 45.500 euro baino handiagoak, hau da, 1,3 indizea baino handiagoak erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko indarrean dauden gehieneko diru sarrerekiko.
  - Haztatutako gutxieneko diru sarrerak ezingo dira izan 12.000 € baino txikiagoak.
- Etxebideko etxebizitza eskatzaileen erregistroan izena emateko eskaera eginda izatea.
- Babestutako beste etxebizitza baten esleipendun ez izatea.

- PROZEDURARI DAGOKIONEZ:

Esleitzerakoan kontuan hartuko den lehenengo irizpidea erroldatutako udalarekiko gertutasuna izango da, eta bigarrena, berriz, errolda antzintasuna.

Prozedura osoa publizitate, gardentasun eta lehia askeko printzipioak errespetatuz, eta honako arauen arabera egingo da:

1. Interesatuak bilatzeko epea jarriko da, 20 egun natural baino handiagoa.
2. Epe horren berri herriko eta eskualdeko komunikabideetan eta, gutxienez, Gipuzkoan hedapen handieneko bi egunkaritan iragarri beharko da.
3. Interesatuak bilatzeko epea amaitu ondoren, esleitu beharreko etxebizitza kopurua baino eskatzaile gehiago balego, esleipena zozketaz egingo da notarioaren aurrean. Zozketa horretatik esleipendun zerrenda bat eta zozketan esleipendun izan ez direnek osatutako itxaron zerrenda bat aterako da. Notarioak jasotako zozketaren akta eta emaitzak Udalaren esku jarri beharko dira.

Kasu bietan, kontratua bisatzerakoan egiaztatuko da interesatu bakoitzak betetzen dituen edo ez eskatutako baldintzak.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **ERANSKINA**

### **KLAUSULA OROKORRAK**

#### **LEHENA.- HITZARMENAREN HELBURUA.**

Honako Lankidetz hitzarmen honen xedea da urteetan Eskoriatza Kirol Elkarteak Eskoriatzako herrian eta Leintz bailaran egiten duen lana bultzatzea. Horretarako, hitzarmen honen bidez honako hauek bideratuko dira ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREN alde:

- Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuko 4. kapituluaren "transferentzia arruntak" bezala izendatutako kredituan agertzen den diru laguntza.
- Udal lokal bat prekarioan lagatzea.
- Udal kirol instalazioak erabili ahal izatea Eskoriatza Kirol Elkarteko bazkideek.

#### **BIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Lankidetz hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango du eragina, eta 2016ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Dena den, sinatzaileek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute beste aldeari idatzizko salaketa aurkeztuta. Hitzarmenean jasotako erabakiak ez betetzeagatik egingo da salaketa.

#### **HIRUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.**

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren Jarraipen batzordea eratzea, alde bakoitzeko kide batek osatuko duena. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

Udalaren aldetik: Kirol aholkularia eta kirol zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.  
Eskoriatza Kirol Elkartearen aldetik: Javier Corbal jauna

#### **LAUGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK BETE DIRELA EGIAZTATZEA.**

Eskoriatzako Kirol Elkarteak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen dio berariaz Eskoriatzako Udalari.

**BOSGARRENA.- DIRU LAGUNTZEN ERREGISTRO PUBLIKOAN SARTZEA ETA EMANDAKO DIRU LAGUNTZA ARGITARATZEA.**

1. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorreko 20.1 artikuluan ezarritakoa eta lege hori garatzeko gainerako araudia betez, emandako diru laguntzari buruzko datuak eta ERAKUNDE ONURADUNAREN identifikazioa Estatuko Kontu-hartze Orokorrera bidaliko dira diru laguntzen datu base nazionalean gorde daitezzen, agindu horretan aurreikusitako helburuarekin bakar-bakarrik, eta datu pertsonalen babesari dagokion begirunearekin, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

2. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Legeko 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ERAKUNDE ONURADUNARI emandako diru laguntza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**SEIGARRENA.- IZAERA, INTERPRETAZIOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.**

1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertako baldintzen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak erabakitzeko honako hauetako xedapenak aplikatuko dira:
  - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
  - Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
  - Toki Araubidearen gainean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, apirilaren 8ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartua.
  - Toki erakundeen ondasunei buruzko araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
  - Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
  - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretua.
2. Hitzarmen hau aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak argitzea Eskoriatzako Udalbatzarrari dagokio.
3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazioarekiko auzi jurisdikzioko organoei dagokie hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziez arduratzea.

**KLAUSULA ZEHATZAK**

**ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN HELBURUA ETA ZENBATEKOA.**

Eskoriatzako Udalak, 2016ko aurrekontuaren kargura, 25.000 euroko diru laguntza ematen dio Eskoriatza Kirol Elkarteari taldeko ohiko jarduerak egiten laguntzeko, Udalaren oniritzia aurrez jasotzen duten ez ohiko jardueretarako eta administrazio gastu orokorretarako.

Emandako diru laguntza honako hauetarako erabiliko da:

- 20.000 € elkartearen ohiko jarduerak egiten laguntzeko eta administrazio gastu orokorretarako. Kopuru horretatik:

- o 2.000 € Udalak ezarritako euskararen normalizazio irizpideak betetzearen baldintzapean daude.
- o 2.500 € pilota, areto futbola eta igeriketa taldeak benjamin zein alebin kategoriatan sustatu eta dinamizatzeko.
- o € kirol elkarteko administrazio eta antolaketari lotutako barneko kosteentzako, betiere, kanpoko aholkulariren bat edo bertako administrazioaren bat kontratatzen bada lan horiek egiteko.

- 5.000 € elkartearen ez ohiko jarduerak egiten laguntzeko. Kopuru horretatik:

- o 2.500 € Gabez Takarraran eta Silvestradie lasterketak antolatzeko. Horietatik, 1.900 euro Gabez Takarraran jarduerarako, eta 600 euro Silbestradierako.
- o 2.500 €, BTT martxa antolatzeagatik.

EKEk diru-laguntza emandako helbururako erabiliko ez balu, eta diru laguntza emateko arrazoia izan zen jarduera egingo ez balitz, horri dagokion kopuru berean murriztuko zaio emandako diru laguntza, eta itzuli egin beharko du emandako diru laguntza eta gainera jasotakoa.

#### **ZORTZIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.**

Diruz lagungarritzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak inolako zalantzarik gabe.

Beste batzuen kaltetan gabe, diruz lagungarri honako hauek joko dira:

- Federazio-gastuak, epaileak, dietak, arropa eta kirol-ekipamendua, aseguruak, ordezkaritza-gastuak, protokolo-gastuak eta hirugarren ez-profesionalentzako konpentsazio ekonomikoak.
- Kirol elkarteko administrazio eta antolaketa gastuak, betiere, kanpoko aholkulariren bat edo bertako administrazioaren bat kontratatzen bada lan horiek egiteko.
- Begirale gastuak, betiere, horien zerbitzuak kontratatu direla egiaztatzen baldin bada.
- Gabez Takarraran eta Silbestrada kirol ekitaldiei zuzenean lotutako gastuak.
- BTT martxari zuzenean lotutako gastuak.

#### **BEDERATZIGARRENA.- BATERAGARRITASUNA HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRU LAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU SARRERA EDO BALIABIDEEKIN.**



Emandako diru laguntza bateragarria izango da erakunde publikoek edota pribatuak helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin, baina, inolaz ere ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta horrelakorik balego, emandako eta ordaindutako diru laguntza murriztuko da diruz lagundutako jardueraren defizit mugara arte.

#### **HAMARGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK.**

Ohiko jardueretarako emandako diru laguntza (20.000 €) ondorengo epeetan ordainduko da:

A.- Euskararen normalizaziorako irizpideak betetzeari lotutako diru laguntza (2.000 €) – Osorik ordainduko da urte amaieran, ordainketa bakarrean, eskatutako betekizunak bete direla berretsi ondoren.

B.- Pilota, igeriketa eta areto-futbola indartzera lotutako diru laguntza (2.500). Osorik ordainduko da urte amaieran, ordainketa bakarrean, eta ondorengo baldintzak bete direla egiaztatutakoan:

- Pilotako benjamin eta alebin taldeak sortzea eta Eskoriatzako ikastetxeen arteko txapelketa antolatzea, udaberrian jokatu litzatekeena, eta finalak, sanpedroetan.
- Igeriketako benjamin eta alebin taldeak sortzea.
- Areto-futboleko benjamin eta alebin taldeak sortzea.
- Proiektu horietako gastuak justifikatzea.

C.- Ohiko jardueretarako emandako gainerako diru laguntza, hau da, 14.500 €, ondorengo epeetan:

- %60a ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.
- Gainerako % 40a 2016ko abenduaren lehen hamabostaldian ordainduko da, 11. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

Ez ohiko jardueretarako emandako diru laguntza (5.000 €) ondorengo epeetan ordainduko da:

A.- Gabez Takarraran (1.900 €) eta Silbestradie (600 €) lasterketei emandako diru laguntza, 2.500 € guztira.

#### **Gabez Takarraran**

1.900 €-ko %60 ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gainerako % 40a 11. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

**“Silbestradie”**

600 €-ko %60 ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gainerako % 40a 11. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

**B.- BTT martxari emandako diru laguntza: 2.500 €**

2.500 €-ko %60 ekitaldiaren aurrekontua onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, hitzarmen hau sinatu eta 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Gainerako % 40a 11. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkeztu ondoren.

**HAMAIKAGARRENA.- EMANDAKO DIRU LAGUNTZAK ZURITZEKO EPEAK ETA ERA.**

1. Dagokion zuriketa aurkezteko 30 eguneko epea izango da diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita, eta edozein modutan, 2016ko abenduaren 15a baino lehen egin beharko da (Silbestradie izan ezik, horrek 2017ko urtarrilaren 15era arteko epea izango baitu zuriketa egiteko).
2. Aurkeztu beharreko dokumentazioari eta diru laguntza zuritzeko modua:

Emandako diru laguntza bakoitzaren lehen zatia kobratzeko ondorengoak aurkeztu beharko dira:

- 2106ko ekitaldian egingo diren jardueren programa, edo hala badagokio, diru laguntzaren helburu den jarduera zehatzaren programa.
- Aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiria, Udalari datu hori eskuratzeko baimena ematearen kaltetan gabe.
- Diru laguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.

Emandako diru laguntza bakoitzaren bigarren zatia kobratzeko ondorengoak aurkeztu beharko dira:

Jarduera txostena, ERAKUNDE ONURADUNAREN legezko ordezkariak sinatuta, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak betetzen direla zurriz, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz, eta baita honako hauek ere:

#### **A. JARDUERAREN GAINKO MEMORIA**

- Txosten teknikoa, jarduera antolatzearen gorabeherak zehaztuz. Jarduera guztien zerrenda, bakoitza zein hizkuntzatan egin den adieraziz.
- Jardueraren eremua.
- Parte hartzaileak, kategoría edo adina eta jatorria zehaztuz.
- Non eta noiz egin den.
- Jarduera hori antolatzearen ardura izan duen pertsonaren edo pertsona taldearen fitxa osoa.
- Denboraldiaren bilakaera kategoriaka eta bilakaera historikoa.
- Ez ohiko jarduerak.
- Egindako publizitatea. Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako material idatzia, prentsa oharrak eta abar).
- Kirol eskolei dagokionez, egun indarrean dagoen foru agindua betetzea. Otsailaren 25eko 69/2008 Foru Dekretua.
- Hizkuntz normalizazioari buruz hamalagarren klausulan aipatutako baldintzak betetzea.

#### **B. TXOSTEN EKONOMIKOA**

- Txosten ekonomikoa, diruz lagundutako jardueraren gastuak eta diru sarrerak zehatz deskribatuta, jasotako beste diru laguntzak batzuk barne. Horrekin batera diruz lagundutako jarduera egitean izandako gastu eta diru sarrerei dagozkien dokumentu originalak (fakturak edo balio legala duten egiaztagirak) edo Udalak kautotutako fotokopiak, eta egindako jarduerekin izandako emaitzen balorazio bat.
- Egindako gastuak zerrenda batean sailkatuta, bertan jaso beharko direlarik hartzekodunak eta beraien IFK, agiri justifikatzaileak, diru kopuruak, eta hala badagokio, ordainketa egunak.
- Emandako diru laguntzaren kontura ordaindutako ordainagiri, faktura, nomina, zerga, gizarte segurantzako kuota eta pareko frogak balioa duten bestelako agiri guztiak, merkataritzako trafikoko juridikoan baliodunak badira edo eraginkortasun administratiboa badute. Aipatutako dokumentuetatik ez bada ondorioztatzen ordainketa egin denik, ordainketa egiaztatze beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko dira. Hitzarmenean sartu ahal izango dira hitzarmena indarrean dagoen bitartean egindako gastuak baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten badiote, eta 2016an ordaindutakoak badira justifikazio kontua aurkeztu baino lehen.
- Lagunaren klausulan eskatutako egiaztagirak.
- Helburu berarekin eskatutako edo jasotako diru laguntzei buruzko aitorpena.
- Kirol elkartearen administrazio eta antolaketa funtzioak egiteko kanpoko aholkulariaren bat edo bertako administrariaren bat kontratatu izana egiaztatzea (faktura bidez).
- Pilota, igeriketa eta areto-futbolera begirale zerbitzuak kontratatu izana egiaztatzea (faktura bidez).

## **HAMABIGARRENA.- UDAL LOKALA PREKARIOAN LAGATZEA.**

Eskoriatzako Udalak Intxaurtxueta 9 behean dagoen lokala prekarioan lagatzen dio Eskoriatza Kirol Elkarteari egoitza soziala bertan izan dezan.

Lokalaren lagapena honako baldintza hauekin egiten da:

- Hitzarmenaren bidez adostutako erabilpena prekarioan lagatzen da, hau da, inolako kontraprestaziorik gabe.
- Elkarteari 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte lagatzen zaio lokala. Hala ere, lagapena kasu hauetan eten ahal izango da:
  - Udalak hala eskatuz gero, hiru hilabete aurretik eta horretarako interes publikoko edo gizarte-mailako arrazoiak daudela egiaztatuta.
  - Eskoriatza Kirol Elkarteak lokala itzultzen badu.
- Eskoriatzako Udalaren kontura izango dira instalazioen mantentze-lanak, argindarra, ura, berogailua, garbiketa eta lokalari dagokion zabor-bilketa zerbitzua.
- Udalak edo bere ordezkariak baimena izan beharko dute lokalera eta gela guztietara sartzeko zaintza lanak eta konponketa eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

## **HAMAHIRUGARRENA.- KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA.**

### **ERABILERA EGUTEGIA**

Eskoriatza Kirol Elkarteak, denboraldia hasi aurretik, egutegia aurkeztuko dio kirol aholkulariari edo, hala bada, kiroleko zinegotzi arduradunari, entrenamenduak edota lehiaketak direla-eta udal kirol instalazioak noiz –egunak eta orduak- erabili beharko dituen zehaztuz. Kirol aholkulariak eta kiroleko zinegotziak eskaria aztertu eta beste erabiltzaile batzuk egindakoekin bateratuko du. Ondoren, denboraldian kirol elkarteari dagokion erabilera-egutegia erabakiko du.

Eskoriatzako Kirol Elkarteak Manuel Muñoz Kiroldagiko ordutegiaren barruan antolatu beharko ditu beti bere entrenamenduak eta partidak:

- Astelehenak: 14:00 - 21:00
- Astearte eta ostiralak: 7:30 - 21:00
- Larunbatak: 9:00 - 13:30 y 15:30 - 20:00
- Igande eta jaiegunak: 9:00 - 13:30
- Abuztuan: 9:00 - 13:00 y 16:00 - 20:00 (asteburuetan itxita).

Egutegi horretatik kanpo Elkarteak kirol instalazioen bat beharko balu, eskaria kiroleko zinegotziari egin beharko dio, behar besteko denborarekin beste erabilera batzuekin koordinatu ahal izateko. Elkartearen beharra kiroleko ordutegietatik kanpo baldin bada, elkarteak berak izango du instalazioaren ardura atezain barik dagoen momentu oro.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoiak behar moduan egiaztatzen baditu, egutegian Elkartearentzat gordetako egunetan erabili ahal izango ditu Udalak kirol instalazioak. Erabilera

hori aldi baterako Udalari itzultzea justifikatzen duen arrazoiak horrela ahalbideratzen badu, Udalak hilabete aurretik emango dio erabilera horren berri Elkarteari.

#### UDAL KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA.

Eskoriatzako Kirol Elkarteko jokalaria federatu guztiak, kadete mailatik senior mailaraino, Manuel Muñoz Kiroldegia erabili ahal izateko ezinbestekoa izango dute bertako abonatuak izatea.

Erabilera horren kontraprestazio bezala, instalazioak erabiltzen dituen bazkide federatu bakoitzaren urteko tarifarengatik dagokiona ordaindu beharko dio EKE-k Eskoriatzako Udalari. Horretarako, 2016ko ordenantza fiskaletan hiruhileko tarifa berezi bat aurreikusi da: 5 € Eskoriatzan erroldatutakoentzat, eta 10 € Eskoriatzan erroldatuta ez daudenentzat.

Hiruhileko tarifa hori ordaintzeko ohiko jarduerari dagokien diru laguntzatik kenduko da, bi zatitan:

- Diru laguntzaren lehenengo zatitik, urteko lehenengo bi hiruhilekoei dagokien kuota, EKE-k 2015/2016 denboraldi hasieran pasatutako jokalaria zerrendaren arabera.
- Diru laguntzaren bigarren zatitik, hurrengo denboraldiko (2016/2017) jokalariei dagokien kuota.

Hitzarmen hau sinatuta, EKE-k bere gain hartzen du 2015eko urriaren 1ean dituen bazkide federatu guztien tasaren ordainketa, diru laguntzaren lehenengo zatitik kenduko dena, eta baita 2016ko urriaren 1ean izango dituen bazkide federatu guztien tasaren ordainketa ere, diru laguntzaren bigarren zatitik kenduko dena.

Hitzarmena sinatzerakoan, 2015/16 denboraldian Manuel Muñoz kiroldegian abonatuta dauden EKE-ko bazkide kopurua honako hau da: Eskoriatzan erroldatutako 27 jokalaria eta, 65, erroldatu gabe; eta Eskoriatzan erroldatutako 10 entrenatzaile eta, 11, erroldatu gabe.

Horrela, kontzeptu horregatik EKE-k Udalari ordaindu beharreko tasa diru laguntza ordaintzeko lehenengo epean 1.890 eurokoa da.

2016/2017 denboraldiko jokariengatik ordaindu beharreko zehaztea faltatzen da. Kopuru hori EKE-k, 2016ko urriaren 1a baino lehen, jokalaria berriei buruzko datuak aurkeztutakoan kalkulatu da, eta ohiko jardueretarako emandako diru laguntzaren bigarren zatitik kenduko da.

<b>HAMALAU GARRENA.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO LANETAN ESKORIATZA KIROL ELKARTEARI LAGUNTZEA.</b>
---

Eskoriatza Kirol Elkarteak bere erantzukizun bezala hartzen du euskararen erabilaren normalizazioa bere jardueretan. Horretarako ondorengo neurriak hartuko ditu arlo hauetan:

- Entrenatzaileak: poliki-poliki neurriak hartuko dira entrenatzaile guztiak euskaldunak izateko.
- Idatzizko komunikazioak: jendearentzako idatzizko produkzioan bi hizkuntz ofizialak erabiliko dira, lehentasuna emanez euskarari.
- Ahozko komunikazioa: ahozko eta giroa sortzeko komunikazio guztietan bi hizkuntz ofizialak erabiliko dira, lehentasuna emanez euskarari.

Horretarako, Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du Eskoriatzako Kirol Elkarteari laguntza emateko goian esandako konpromisoak bete ahal izateko. Laguntza honako hau izango da:

- Elkarateak idatzitako testuak itzuli edota zuzentzea.
- Elkarateak prestakuntza aldetik dituen beharrei erantzutea.
- Elkarateak hartutako konpromisoen jarraipena egitea.

Puntu honetan proposatzen den laguntzarako beharrezkoa da alde bien artean, Kirol Elkartea eta Udala, dokumentu bat egitea urte bakoitzeko beharrak eta egin beharreko ekintzak zehazteko. Dokumentu hori hitzarmen hau sinatzen denetik hilabete bateko epean egin beharko da euskararekin lotutako jarduerentzako 2016rako dokumentu gida izateko.

<b>HAMABOSGARRENA.-</b>	<b>ESKORIATZA</b>	<b>KIROL</b>	<b>ELKARTEAK</b>	<b>HARTZEN</b>	<b>DITUEN</b>
<b>KONPROMISOAK.</b>					

## **1. KIROL ARLOAN.**

1.1. Erantzun zibileko aseguruia izatea antolatutako kirol ekitaldiei aurre egin ahal izateko. Aseguruak, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan behar du. Hitzarmen honen helburu den programaren funtzionamenduaren ondorioz pertsonen eta ondasunen aurka gerta daitekeen edozein gorabehera estali beharko du aseguruak, eta hitzarmena sinatu baino lehen polizaren originala edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

1.2. Kirol arloko jarduerak behar bezala antolatzea, kirolarien osasuna eta segurtasuna bermatuz.

1.3. Eskoriatza Kirol Elkarateak Debagoiengan beteko du bere jarduera eta bertoko biztanleen onura lehenetsiko du, betiere, kontuan izanda Aldundiak kirol eskolei buruz ezarritako arauak. Eskoriatzako 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutiko guztiek izan behar dute parte hartzeko aukera, eta bere jarduera eskualdera edo probintziara mugatuko da.

1.4. Kirol eskolak dinamizatzea, indarrean dagoen araudia (otsailaren 25eko 69/2008 Foru Dekretua) errespetatuz, federatutako taldeetako jokalarien % 100a Eskoriatzako izan dadin ahalegintzeko.

1.5. Gabez Takarraran mendi lasterketari dagokionez, lasterketa antolatzea hitzarmen honetan eskatutako baldintzak betez.

1.6. Mendiz egiten den bizikleta martxari dagokionez, martxa hori antolatzea hitzarmen honetan eskatutako baldintzak betez.

1.7. Silbestradiari dagokionez, lasterketa hori antolatzea hitzarmen honetan eskatutako baldintzak betez.

1.8. Denboraldi bakoitzean, urriaren 1 baino lehen, Eskoriatzako Kirol Elkartek elkarteko kideen datuak eguneratu beharko ditu: jokalari federatuak, entrenatzaileak, monitoreak eta zuzendaritzako kideak, eta baita kirol eskoletako datuak ere: ume kopurua kategoriaka (benjaminak eta alebinak) eta horien arduradunak.

Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

1.9. Osasun Zentroak, MU-k, Luis Ezeiza eta Arizmendi Almen ikastetxeak, Zaharren Egoitzak eta Udalak osatutako toki osasun komunitarioaren sarearekin lankidetzan aritu.

## **2. EUSKARAREN ARLOAN.**

Hitzarmen honen hamalagarren baldintzan ezarritako eta onartutako konpromisoak betetzea.

## **3. KUDEAKETA ARLOAN.**

Eskoriatza kirol elkartek Udalak lagatuko lokalak eta instalazioak modu egokian erabili eta zaintzeko konpromisoa hartzen du. Lokala Elkartearen administrazio eta antolaketa lanetarako erabiliko da eta ezingo zaio bestelako erabilerarik eman. Era berean, egoera onean gorde beharko du, eta beharrezkoak diren konponketak egingo ditu. Hitzarmenaren epea amaitzean, jaso duen egoera berean itzuli beharko du lokala. Ezingo du obrarik egin Udalaren baimenik gabe eta ezingo die hirugarren batzuei erabiltzen utzi.

Diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanetan Udalak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako edozein informazio eman beharko du Eskoriatza Kirol Elkartek.

Bere jarduera burutzeko beharrezko lizentziak eta baimenak izan beharko ditu Eskoriatza Kirol Elkartek, dagokien erakundeek emandakoak. Era berean, zuzenbide pribatuko erakundea den aldetik, ez du Udalarekiko mendekotasunik ez inolako harremanik ere, eta beraz, azken horrek ez du bere gain hartuko, ez zuzenean ez zeharka ere, Elkartearen jarduera dela-eta egiteagatik edo ez-egiteagatik gertatu litekeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

## **4. KOMUNIKAZIO ARLOAN.**

Inprimatutako propagandan Eskoriatzako Udalaren logotipoa agertu beharko da laguntzaile gisa.

Komunikazio guztiak 14. klausulan jarritako moduan egin beharko dira.

Eskoriatza Kirol Elkarateak antolatuko dituen jarduera guztietan eta horien inguruan kaleratuko duen propagandan, berdintasun eta genero ikuspegiak hartu beharko ditu kontuan eta hizkuntza eta irudia erabiltzean ez du inongo elementu diskriminatzailearik sartuko.

## **5. LANGILE BOLUNTARIOEI DAGOKIONEZ.**

Hitzarmenaren esparruan egiten diren jardueretan laguntzeko langile boluntarioak izanez gero, ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAK poliza bat egin beharko du boluntarioentzat, boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 1998/25 Legean aurreikusitakoaren arabera. Era berean, inolaz ere ez da menpekotasun harremanik izango boluntario horien eta Eskoriatzako Udalaren artean.

Eta, esandako guztiarekin ados daudela egiaztatzeko, alde biek hitzarmen hau sinatu dute bi aletan eta ondorio bakarrarekin, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.



## **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 10 de marzo de 2016 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía por las que se aprueban los expediente de modificación de créditos N° 21/2015 y N° 1/2016.

## **2.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS MUNICIPALES**

Con fecha 20 de octubre de 2015 se dictó acuerdo de iniciación del expediente de contratación del servicio de limpieza de diversos edificios municipales, mediante procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación, ascendiendo el presupuesto de licitación para el primer año del contrato, IVA incluido, a 150.000 euros.

Asimismo, se aprobaron los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas que habrían de regir el contrato y se autorizó el gasto correspondiente.

Dentro del plazo fijado al efecto, presentaron oferta las siguiente empresas:

- DISTRIVISUAL S.L.
- HEMEN GARBIKETAK S.L.U.

Valorados los criterios de adjudicación evaluables mediante juicios de valor, se otorgaron las siguientes puntuaciones a cada una de las empresas:

- DISTRIVISUAL S.L. 6,5 puntos
- HEMEN GARBIKETAK S.L.U. 14,5 puntos.

Resultando que DISTRIVISUAL S.L. no obtuvo 9 puntos ( fueron 6,5 los obtenidos) en el apartado de MEMORIA TECNICA, y, según se prevé en la cláusula 8, dicha puntuación era la mínima para poder continuar en el proceso de contratación, la Mesa de Contratación acordó EXCLUIR del proceso a DISTRIVISUAL S.L. y no proceder a la apertura de sus proposiciones económicas.

El cómputo total de puntos obtenido por HEMEN GARBIKETAK SLU es el siguiente:

- OFERTA ECONOMICA: 70 puntos

- MEMORIA TECNICA: 14,5 puntos

- MEJORA: 8 puntos

- TOTAL: 92,5 puntos

Realizadas las valoraciones conforme a los criterios de adjudicación establecidos en el Pliego de Condiciones, la Mesa de Contratación propone la adjudicación del contrato a HEMEN GARBIKETAK SLU

Considerando que se requirió a HEMEN GARBIKETAK SLU para que procediera dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, a presentar la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de tener suscrita la póliza del seguro obligatorio y de haber constituido la garantía definitiva por importe del cinco por ciento (5 %) del importe de adjudicación, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Considerando que el licitador ha presentado la documentación legalmente prevenida dentro del plazo previsto.

